Tengo derecho a ser cuidado por personas capaces de mantener una sensación de optimismo, por mucho que varíe la situación.

Tengo derecho a expresar mis sentimientos y emociones sobre mi forma de enfocar la muerte.

Tengo derecho a participar en las decisiones que incumben a mis cuidados.

Tengo derecho a esperar una atención médica y de enfermería continuada, aun cuando los objetivos de «curación» deben transformarse en objetivos de «bienestar».



Tengo derecho a no morir solo.

Tengo derecho a no experimentar dolor.

Tengo derecho a que mis preguntas sean respondidas con sinceridad.

Tengo derecho a no ser engañado.

Tengo derecho a disponer de ayuda de y para mi familia a la hora de aceptar mi muerte.

Tengo derecho a morir en paz y dignidad.

Tengo derecho a mantener mi individualidad y a no ser juzgado por decisiones mías que pudieran ser contrarias a las creencias de otros.

Tengo derecho a discutir y acrecentar mis experiencias religiosas y/o espirituales, cualquiera que sea la opinión de los demás.

Tengo derecho a esperar que la inviolabilidad del cuerpo humano sea respetada tras mi muerte.

Tengo derecho a ser cuidado por personas solícitas, sensibles y entendidas que intenten comprender mis necesidades y sean capaces de obtener satisfacción del hecho de ayudarme a afrontar mi muerte.

Michigan Inservice Education Council

DUINTASUNEZ HILTZEKO ESKUBIDEAREN ALDEKO ELKARTEA

Irabazi asmorik gabeko elkarte da. Bere helburu nagusia honako hau da: gaixotasun sendaezina duen pertsona orok, bere bizitza amaitzearen inguruan duen borondate aitortua eta askea errespetatzea, beti ere horretarako gaitasuna duenean.

HELBURUAK (Estutuetako 2. artikulua):

a) Pertsona ororen eskubidea bultzatzea, bere gorputzaz eta bizitzaz askatasun osoz erabaki dezan, eta hiltzeko momentua eta bitartekoak askatasunez eta legalki aukeratu ditzan.

b) Bereziki gaixo terminalen eskubidea defendatzea, momentua iristen denean bakean eta sufrimendurik gabe hiltzeko, hori bada beraien nahia.

JARDUERAK:

1. Gizakiaren heriotzari eta askatasunari buruzko ikerketak bultzatzea, bakoitzak bere patua arrazionalki aukeratu ahal izan dezan.

2. Iritzi publikoak begi onez ikustea elkartearen helburuak, legeak ezarritakoa betez eta iritzi desberdinak errespetatuz.

3. 2. artikuluan jasotako eskubideen onarpen legal eta soziala bilatzea.

4. Batez ere gaixoaren eskubide hauek defendatzea: bere gaixotasunaren diagnostiko eta tratamenduari buruz ulertzeko moduan informaturik egotea, bere tratamenduari buruzko azken erabakiak hartzea, tratamendua ez onartzea barne, eta ez sufritzeko beharrezko baliabideak eskura izatea.

5. Agiri berezi baten berri ematea eta agiri hori legeak onartzea. Agiri horretan gaixoak nola hil nahi duen idatziz adierazi ahal izango du.

ELKARTEAK EZ DU DEFENDATZEN pertsona zaharrak, elbarriak, jaioberri ezindu edo atzeratuak hiltzea: pertsona heldu batek bere gaixotasunari eta heriotzari buruz hartutako erabakia errespetatzea nahi du, besterik ez.

ELKARTEAK INDARREAN DAUDEN LEGEEN
ARABERA JARDUNGO DU BETI

ELKARTEAREN HISTORIA

* 1984ko urtarrilaren 15a: *El País* egunkariak, Miguel A. Lermaren "El derecho a la muerte" artikulua argitaratu zuen. Bertan, heriotza duinaren aldeko mundu mailako mugimenduren printzipioen eta historiaren berri eman zuen. Espainia guztiko pertsonak bat egin zuten artikulua honetan azalduzko printzipioekin.

* 1984ko martxoaren 26a: elkarteak Estatutuak landu ziren.

* 1984ko maiatzaren 18a: Sorrerako Biltzarra. Egoitza Soziala eta Zuzendaritza Batzordea Madrilen ezarri ziren. Elkarteak estatu osoan la egiteko jaino zen.

* 1984ko irailaren 20a: DMD, World Federation of Right-to-Die Societies-en (Hiltzeko Eskubidearen Aldeko Elkartearen Mundu Mailako Federazioan) sartu zen.

* 1984ko abenduaren 13a: nahiz eta hasieran ez onartu, Barne Ministerioak DMD Elkartearen Erregistroan onartu zuen.

* 1986ko urtarrila: DMDk Bizi Testamentuaren lehen ereduak landu eta aurkeztu zuen. Espainian dokumentu berria izan zen.

* 1989ko urtarrilaren 20a: Biltzar Nagusian, Egoitza Soziala eta Zuzendaritza Batzordea Bartzelonara aldatzea erabaki zen.

* 1991ko urria: "Irreversible" publizitate iragarkia, DMDrekin elkarlanean produzitua. Gaixoaren borondatea errespetatzea bultzatzen zuen. Komunikabideetan lehen albiste izan zen.

* 1993ko urtarrilaren 2a: DMDk Gobernuaren aurreproiektuaren ordezkotako proiektu alternatiboa aurkeztu zuen. Aurreproiektu hori gaixo terminala hiltzen laguntzarekin lotura duten Kode Penaleko artikuluen erreformarako zen. Bide batez, Osasun legearen erreforma eskatzen zuen, gaixoak tratamendua onartzen ez duenean, ospitale batean alta eskatzea beharrezkoa izan ez dadin.

* 1993ko urtarrila: ehunka intelektual eta artista espainiarrek Elkartearen helburuekin bat egiten zuten agiri bat sinatu zuten.

* 1993ko apirilaren 30a: auzitegi espainiarretan lehen demanda, duintasun osoz hiltzeko eskubidearen aldeko epaia eman zezaten. Eskaera DMDko Ramon Sanpedro Camean tetraplejikoak egin zuen, DMDko aholkularitza juridikoarekin. 1994ko uztailaren 18an Auzitegi Konstituzionalak ez zuen onartu forma akatsengatik.

* 1995eko uztailaren 17a: Ramon Sanpedrok bigarren auzi-eskaerak hasi zuen.

* 1996ko otsailaren 10a: DMDren Bizi Testamentuaren bigarren ereduak aurkeztu zen. Gizartean oihartzun handia izan zuen.

* 1996ko maiatzaren 10a: Espainian lehenengo

aldiz aurkeztu zen Bizi Testamentua arautzeko ekimen parlamentarioa.

Hain zuzen ere, Eusko Legebiltzarrean garai hartan parlamentuko diputatu zen Juantxo Dominguez jaunak aurkeztu zuen. Orduan, Eusko Legebiltzarrak atzera bota zuen proposamena. Baina beste alderdi politiko batzuek Kataluniako Legebiltzarrean aurkeztu zuten, eta aztertzeke onartu zen, hango autonomi estatutuaren eskumenei jarraiki onartu zitekeen ala ez aztertzeke, alegia.

* 1997ko apirilaren 25a: Bizi Testamentua arautzeko ekimena bigarren aldiz aurkeztu zuten Eusko Legebiltzarrean, eta, azkenean, ekimena onartu egin zen. Horren bidez, Legebiltzarrak bizi testamentua Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzeko aukerak aztertzeke txostena egin zezan eskatzen zitzaion Eusko Jaurlaritzari.

* 1998ko urtarrilaren 12a: Ramon Sanpedro hil zen suizidio lagunduaren bitartez. Testamentu ireki harrigarria utzi zuen, bere ahoz idatzita, eta heriotzaren bideoa ere bai. Irudietan bakarrik eta lasai ageri da. Milaka pertsonak sinadurak bidali zituzten DMDra edo Auzitegira autoinkulpatzeko. Bere heriotzak gizartea astindu zuen eta borondatezko eutanasiari buruzko eztabaida berriro piztu zuen. Senatuak hori aztertzeke Komisia sortzea erabaki zuen.

* 1998ko apirilaren 24a: Eusko Legebiltzarrak Bizi Testamentuari buruzko txostena jaso zuen, eta bertan txostenean adierazitakoaren ondorio gisa, honakoa adierazten da:

“Eskumenei dagokionean, adierazi behar da Euskal Autonomia Erkidegoak Bizi Testamentuan arautu dezakeela, baina beti ere oinarriak errespetatu egin beharko dituela, izan ere horiek osasun alorrean arautzea estatuari baitagokio (149.1.16 art. EE).

“Estatuak alor horretan erabakirik ez badu hartzen, autonomi erkidego honek bere legedia onartu ahal izango du, konstituzionaltasun blokeari dagozkion oinarriak errespetatuz”.

* 2000ko abenduaren 29a: Kataluniako Parlamentuak osasunari eta gaixoaren autonomia eta dokumentazio klinikoari buruzko informazio eskubidearen legea onartu zuen.

Eutanasia eta autoliberazioa

“Eutanasia” hitzak etimologikoki “zorte ona” esan nahi du. Gaur egun berriz, honela ulertzen da: “Bere egoerari eta pronostikoari buruz behar bezala informaturik dagoen gaixo baten heriotza eragiteko ekintza, bere borondatez eta libreki eskatuta, sufrimendu jasanezina eragozteko”.

Eutansi motak

Gaur egun ez dago batere garbi zer eutansi mota dauden eta horietatik zein diren onargarriak.

Hiltzen laguntzeko modu batzuk, orain dela gutxi arte, eutanasia hitzaz ezagutzen ziren (*pasiboa, zeharkakoa*). Gaur egun, ordea, medikuntza praktika egokitzat onartuta daude. Azken 50 urteetan, biomedikuntza zientzian izandako aurrerapenak ikusgarriak izan dira, eta horrek garrantzi handia izan du bizitzaren luzapenean eta gizakiak hiltzeko moduan.

Era berean, terminologia eta kontzeptuak errealitate sozialera eta medikuntza jardunera moldatzeko prozesua oso azkarra izan da. Horregatik, sektore askotan, batez ere osasun arloan, eguneroko praktikan ez dago oso garbi zein diren hiltzeko modu onargarriak eta zein ez. Tamalez, 1995eko azaroan parlamentu espainiarrean gai honi buruz Kode Penalerako onartutako tratamendu juridikoak ez du askorik laguntzen egoera hori argitzen. Bestalde, osasungintzako profesionalak, orokorrean, ez daude behar bezala prestatuta hiltzen laguntzeko.

Autoliberazioa eta suizidio lagundua

Elkartearen iritziz autoliberazioa honako hau da: eutanasia justifikatua egongo litzatekeen egoeretan suizidioa burutzea. Egoera horiek eutanasiaren definizioan aipatutakoak dira. Suizidio lagundua, berriz, beste pertsona batek burututako autoliberazioa da.

Espainian badaude autoliberazioari buruzko gidak, edonoren eskura. Horien artean aipagarria da *El último recurso*, Derek Humphry, Ed. Tusquet, Bartzelona, 1992.

Zer eskaintzen du DMDk?

* Sei hilabetean behin argitaratzen den aldizkaria, artikulu interesgarriekin eta informazio zabalarekin, heriotza duinaren aldeko mugimendu mundialaren aktualitateari buruz.

* Bizi Testamentuaren eredu bat, bere erabilpenerako argibideekin, eta Bizi Testamenturen borondatezko Erregistro bat.

* Osasun zerbitzuekiko gaixoaren eskubide eta betebeharrei buruzko aholkularitza.

* Heriotza duinari buruzko aholkularitza juridikoa.

* Kasu bakoitzerako arreta pertsonala. Zerbitzu hau, momentuz, Bartzelonan eta Madrilen bakarrik eskaintzen da.

* 22 herrialdetako heriotza duinaren aldeko erakundeekin harremana. Talde hauek Federazio Mundialean eta duintasunez hiltzeko eskubidearen aldeko elkarteak Europako Dibisioan elkarturik daude. DMD bertako kidea da.

* Gizaldeko beste elkarteekin harremana, bereziki, helburutzat gaixoak (HIESA, Alzheimerra, etab.) laguntzea dutenekin.

* Heriotza duinari buruzko gaurkotutako informazio bibliografikoa.

* Hitzaldi eta ekitaldi publikoak, normalean, jende ororentzat. Gure kideak beti egongo dira bertan parte hartzera gonbidaturik.

DMDren zerbitzu eta jarduera guztiak egiteko, elkarteak kideak borondatez aritzen dira eta ordainetan ez dute dirurik jasotzen. Era berean, elkarteak Espainia guztian Herrietako Taldeen sorrera bultzatzen du, kideen arteko harremana errazteko eta jarduera gehiago antolatzeke. Horregatik, bihotzez eskertuko dugu laguntza guztia.

Zer esan nahi du duintasunez hiltzeak?

Hiltzea ez da ekintza bat, prozesu bat baizik. Duintasunez hiltzeko eskubidearen aldeko elkarteak eskubide hori honela ulertzen du: norberaren bizitzaren azken prozesuaren gainean arrazionalki erabakitzea, askatasun pertsonala erabiliz eta besteak errespetatuz.

Pertsona gehienek heriotza baketsua eta sufrimendurik gabea nahi dute. Gaur egun, nahi hori gero eta boteretsuagoak diren teknika eta baliabide klinikoek kolokan jar dezakete. Baliabide horiek bizitzaren luzapen harrigarria lortu dute. Baina, batzuetan, luzapen hori ez doa bat desiratutako *bizitzaren kalitatearekin*.

Pertsona askok uste dute degenerazio fisikoak eta sufrimendu fisiko eta psikikoak merezi ez duten egoera batera bultzatu dituela. Egoera horietan, heriotza ez dute hain gauza txartzat ikusten: beraien agoniaren eta oinazeen bukaera da. Horretarako, normalean, beste pertsona batzuen laguntza behar izaten dute, eta batez ere, askatasun osoz eta garbi adierazitako beraien borondatea errespetatzea.


Giza duintasunaren benetako errespetuak giza borondatearen errespetatzea esanahi du, eta baita hiltzeko nahia ere, beti ere pertsona guztiek duten bizi kalitatea izateko eskubidea berreskuratzeko ezer egin ezin daitekeenean.

Duintasuna gizartean onartutako balioa da, baina indibidualki gauzatzen da. Norberak bakarrik erabaki

dezake bere bizitza duina den edo ez.

Borondatezko eutanasia

Mende honetan zehar, eutanasiari buruz eginiko sailkapenetatik garrantzitsuen pertsonaren borondatea eta borondate faltaren arteko bereizketa da. DMD elkarteak borondatezko eutanasia bakarrik defendatzen du. Borondatezko eutanasiarekin zera ulertzen du: hiltzen laguntzea, bere buruaren jabe den pertsona batek askatasun osoz, kontzienteki eta ondo informaturik eskatuta.



Gaur egungo medikuntzaren baliabide teknikoak eta farmakologikoak oso eraginkorrak dira. Gaixoak aukeratzeko alternatiba zabal bat izan dezan defendatzen du DMDk, bere kasurako klinikoki egokienak direnen artean.

Eskura dauden alternatiben artean, bi aipatuko ditugu: Minaren Tratamendurako Unitateak eta Zainketa Paliatiboen Unitateak. Sarritan gaixo terminalaren azken oinazea lasaitzen dute. Beste batzuetan, gaixoak, bere buruaren jabe dela, tratamendua kentzeko edo ez hasteko eskatzen du, edo baita bere heriotza azkartuko duten medikamentuak emateko ere. Gaixoak aukeratzeko duen alternatiba, edozein delarik, errespetatu egin beharko litzateke.

Borondatezko eutanasiaren egoera legala

Azken urteetan, borondatezko eutanasiak estatus legala lortu du hainbat herrialdetan. Estatistiken arabera, gizarte garatuetan, herria argi eta garbi adierazten da borondatezko eutanasiaren despenalizazioaren alde, beharrezko berme legalak ezarriz.

HOLANDA: 1993ko azaroaren 30ean, Parlamentuak eutanasiari buruzko neurri legal batzuk onartu zituen. Neurri horiek ez dute eutanasia despenalizatzen, baina berau egiten duten sendagileak ez dituzte zigortzen, legeak ezarritako baldintzak betetzen badituzte. Izan ere, eutanasia 1981etik egin izan da ondo kontrolatuta,

epai judizial historiko baten ondorioz. Holandako esperientzia aitzindaria asko erraztu du legea eutanasiaren errealitate sozialera moldatzearen aldeko portaerak. Aldeko portaera hori orain dela urte batzuk eskatzen zuen Holandako Sendagileen Elkarteak.

2000ko abenduaren 28an Holandak eutanasia legeztatu zuen, munduan hori egin duen lehen herrialdea izanik. Eutanasia despenalizatzeko baldintzak, besteak beste, honakoak dira: "gaixoak sufrimendu jasanezina izatea, gaixotasuna atzeraezina izatea, beste aukera batzuk ezagutzea, eta gutxienez bi medikuren iritzia izatea. Horrekin batera, ezinbestekoa da gaixoak behin eta berriro eskatu izatea, eta hori gaitasun mental osoa duela egitea.

BELGIKA: Gobernua osatzen duen koalizioa aztertzen ari da, egun, zenbait eutanasia moduri zigorra kenduko dien araudiaren onarpena.

AUSTRALIA: 1995eko maiatzaren 25ean, borondatezko eutanasia legalizatu zen Northern Territory estatuan. Hor ere erabakigarria izan zen sendagileen portaera. Izan ere, karta irekietan borondatezko eutanasia egin zutela ezagutarazi zuten. Geroago, gobernu zentralerako Parlamentuak Northern Territoryko legeria bertan behera utzi zuen.

AMERIKETAKO ESTATU BATUAK: 1994an, Oregoneko estatuan erreferendum batean, biztanleriaren %52k suizidio lagundua legalizatzearen alde bozkatu zuen. Death with Dignity Act (Heriotza Duinari buruzko legea), epaileak errekurtsioa aurkeztu ondoren, etenda geratu zen. Azaroaren 17an berriro onartu zen beste erreferendum batean, biztanleriaren %60ren aldeko botoei esker.

ESPAINIA: 1995eko azaroaren 8an, Espainiako Parlamentuak Kode Penal berria onartu zuen. Kode berrian, nabarmen arindu ziren beste norbait hiltzen laguntzen zituztenen zigorrak. "... *berak espreski eginiko eskaeraz eta ondorengo kasuetan: biktimak heriotzera eramango lukeen gaixotasun larria, edo oinaze larri iraunkor eta jasanezina izango balu...*" (143. art.). Kode zaharrean, 6 eta 20 urte bitarteko kartzela zigorrak zeuden suizidioan laguntzeagatik (409. art.). Kode berrian, "*urte eta erditik hiru urte bitarteko kartzela zigorra heriotza eraginez gero, eta sei hilabetetik urtebetera laguntzeagatik*" (143. art.)

DMDk uste du borondatezko eutanasia aktiboa eta suizidio lagundua *erabat* garantia egokiekin despenalizatzeko aukera historikoa galdu zela. Inkesta ofizialen arabera, hori da Espainiako gizarteak eskatzen duena.

KOLONBIA: 1997ko maiatzaren 21a. Auzitegi Konstituzionaleko epaiak zera erabaki zuen: sufrimendu handia duten gaixo terminalerik hiltzen laguntzen dien sendagilea ez da zigortuko, beti ere gaixoak eskatuta eta medikuntzak ezin baditu eskaini sufrimendurik ez izateko baliozko alternatibak.

Heriotza duinaren aldeko mundu mailako mugimendua

1935ean Voluntary Euthanasia Society (VES) sortu zen Ingalaterran. Ingalaterrako gizarteko zati batek uste zuen bakoitzaren heriotzaz erabakitzeko eskubidea zuela eta elkarte hau hori defendatzeko jaio zen. Eskubide honen defentsak urte askotako tradizioa zuen herrialde horretan. Beste batzuen artean, borondatezko eutanasiaren aldeko pertsonak ondorengo hauek izan ziren: Julian Huxley, George Bernard Shaw eta H.G. Wells.

1938an, Euthanasia Society of America sortu zen AEBetan. Urte batzuk geroago, Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalean hiltzeko eskubidea sartzeko eskatu zuen. 1967an, elkarte honek Euthanasia Educational Fund sortu zuen, gai honi buruz jendearentzat hezkuntza programa bat hasteko helburuarekin.

1957an, Pio XII.a aita santuak publikoki onartu zituen bi gauza: alde batetik, "ezohizko" tratamenduak ("desproporzionatuak" gaur egungo terminologian) ez onartzeko legitimitate morala, eta bestetik, gaixoari mina arintzeko beharrezko lasaigarriak emateko legitimitatea, nahiz eta horrek bere bizitza moztu.

1967an, Chicagoko abokatu batek, Luis Kutnerrek, dokumentu bat idazteko ideia izan zuen. Dokumentu horretan, sinatzaileak bere bizitza artifizialki ez luzatzeko desioa azaltzen zuen. Lehen Bizi Testamentua izan zen.

70eko eta 80ko hamarkadetan, anglosaxoi zonako auzitegietan, eutanasia eskatzen zuten kasu asko izan ziren. Horrek, gizartean eragin handia izan zuen. Kasurik ezagunenak Karen Quinlan eta Elisabeth Bouviarenak dira. 90eko hamarkadaren hasieran, interes handiko epaiak eman ziren: Tony Blanden kasua Britainia Handian eta Nancy Kruzanena AEBetan.

Gai honi buruzko publikazioak kaleratu ziren. Elisabeth Kübler-Rossen *Sobre la muerte y los moribundos* (1969), best-sellerra bihurtu zen. Gauza bera gertatu zen *El último recurso*ekin, Derek Humphryk autoliberazioari buruz idatzitako gida (1991).

Heriotza duinaren aldeko errebindikazioak gaixo terminalen egoera hobetzeko interes handiko mugimenduak jarri zituen martxan. 1967an, Cecily Saundersek lehen *hospicea* (Zainketa Paliatiboen zentrua) sortu zuen Ingalaterran. Mundu osoko beste herrialde askotan jarraitu diote eredu honi.

Holandan, bi epai garrantzitsuren ondorioz (Leuwardeneko Auzitegia, 1973, eta Rotterdameko Auzitegia, 1981), baldintza batzuk ezarri ziren gaixo terminaleri suizidio lagundua egitea ez zigortzeko. Gaixo horiek sufrimendu jasanezina

eduki behar dute eta suizidio lagundua beraiek askatasun osoz, borondatez eta behin eta berriz eskatu behar dute. 80ko hamarkadan mundu guztian zehar heriotza duinaren aldeko elkarteek nabarmen egin zuten gora. Mugimendu hori mundu mailakoa bihurtzeak sinesgarritasuna eman zion. Nukleo garrantzitsuena World Federation of Right-to-Die Societies-en barruan dauden 40 elkarte baino gehiagok osatzen dute. Espainiako DMD elkarteak ere Federazio horretako kidea da 1984. urtetik.

BIZI TESTAMENTUA

Bizi Testamentua elkartearen Estatutuko 3. artikuluko 5. zenbakian aipatzen den dokumentua da.

Bizi Testamentua dokumentu bat da eta, bertan, pertsona batek tratamendu medikoak hartzeko edo ez hartzeko borondatea azaltzen du. Erabaki hori, pertsona horrek gaixotasun sendaezin edo terminal baten ondorioz bere kabuz hitz egin ezin duenerako izango litzateke.

Bizi Testamentua idatziz egiten da. DMD elkarteak bere eredu propioa egin du eta kide guztiei ematen die sinatu nahi izanez gero. Hala ere, bakoitzak bere dokumentua idatz dezake.

DMDren Bizi Testamentuaren eredian, pertsona bakoitzak bere bizitza luzatuko duten tratamendurik ez jasotzeko borondate garbia azaltzen du. Hori gaixotasun sendaezina izanez gero gertatuko litzateke, gaixotasun horrek sufrimendu fisiko eta psikologiko larriak sortuko balizkio edo bizitza arrazional eta autonomoa eduki ezingo balu. Halaber, azken oinazea kentzeko behar

adina medikamentu emateko eska dezake.

DMDk, Bizi Testamentuarekin batera, dokumentu honen erabilerako argibideen orrialde bat ematen du. Halaber, Bizi Testamentu Erregistroa irekia du bere kideentzat.

DMD: Duintasunez hiltzeko eskubidearen aldeko elkarteak (Euskal Herrikoa)

DMDren Bizi Testamentua

DMDren Bizi Testamentua sinatuko dutenentzako argibide baliagarriak

Zer da Bizi Testamentua?

Sendabiderik gabeko gaixotasunen bat dela-eta, zeure kabuz adieraztea eragozten dizun egoera batean bazaude, gaixotasun horretan izan nahi duzun zaintza medikoa adierazteko aukera ematen dizun agiria da Bizi Testamentua.

Zuk, nahi izanez gero, zeure testamentua egin dezakezu, egoki iruditzen zaizkizun adierazpenak eta arrazoiak azalduz. DMDk inprimaki hau ematen die bazkideei, hain zuzen, tramite horiek errazteko.


Ondoren, DMDk egindako eredia erabiltzeko zenbait argibide baliagarri emango dizkizuegu.

BIZI TESTAMENTUAREN LEGE EGOERA.

Bizi testamentu gisako agiriak, oraingoz, Katalunian soilik daude legez araututa (ikus albisteak). Baina, norberaren borondate adierazpen guztiek bezala, badu bere balioa. Izan ere, praktikan, frogatuta dago bizi testamentuan adierazitakoak gaixoaren ingurukoei erabakiak hartzen laguntzen diela eta ekintza medikoetan eragina dutela. Zuk zeuk adierazitakoa defendatzeko auzietara jo behar izanez gero, agiri hori balio handiko proba da.

SINADURA.

Egokiena bizi testamentua notarioaren aurrean sinatzea da, notarioa sinatzailearen sinaduraren lekuko izan dadin. Horrela egin ezean, hiru lekukorekin sinatu ezazu.



Lekuko horiek ez dute familiartekoak izan behar edo interes ekonomikoa dela-eta zurekin loturaren bat dutenak.

ORDEZKARIA.

DMDren bizi testamentuak ordezkari bat izendatzeko aukera ematen dizu, zu zeure kabuz adierazteko ezintasunean zaudenerako. Ordezkari izateko aukeratutako pertsonak ahalik eta hobekien ulertu beharko lituzke zure nahiak eta bizitzaren amaierari dagokionean dituzun balioak eta arrazoia. Gainera, zure bizi testamentuan utzitako aginduak betearazteko borrokatzeko prest egongo den pertsona izan beharko luke, medikuek edo familiartekoez agindu horiek bete nahi ez badituzte.

Nahi izanez gero, beste ordezkari bat ere izendatu dezakezu, bigarren horrek lehenengoaren lekua har dezan, baldin eta lehenengo kanpoan izan, hilda egon, edo arrazoi garrantzitsu bat dela-eta horren edukia bete ezin izango balu.

TESTAMENTUAREN 1., 2. eta 3. PUNTUAK.

Gaixotasunak eragindako degradazio egoera dela-eta bizi kalitatea bizi nahi ez izateko modukoa bada, sufrimendua arintzeko eta bizitza gogoz kontra ez luzatzeko aukerak ematen ditu.

Puntu horietako aukeraren batekin ados ez bazaude, ezabatu ezazu.

ADIERAZITAKO GAIKOTASUNAK.

Halaber, nahi izanez gero, 4. puntuan adierazitako gaixotasunen artean, testamentuan agertzea nahi ez dituzunak ezabatu ditzakezu.

ZABALPENA.

Zure borondatea beteko dela seguruago izan dezazun, bana itzazu bizi testamentuaren kopiak konfiantzako pertsonen artean (posible baldin bada, familiako medikuari ere eman). Garrantzitsua da testamentua non aurki daitekeen adieraztea, zeure kabuz adieraztea eragotziko lukeen bat-bateko istripua edo gaixotasuna gertatuko balitz, aurkitu ahal izateko. Nahi izanez gero, elkarteak bazkideentzat duen Bizi Testamentuen Erregistrora bidal dezakezu zure bizi testamentua. Horrela egiten bada, ordezkariak elkartearekin

harremanetan jarri ahal izango luke zuk utzitako bizi testamentua nola erabili aholka diezaiozun. DMDk bazkideei ematen dien zerbitzuetako bat da.

BALIOGABETZEA.

Nahi duzun unean baliogabetu dezakezu bizi testamentua. Puskatu egin dezakezu (ez ahaztu banatu dituzun kopiak ere haustea!) edo agirian bertan adierazten den bezala, iritzia aldatu duzula idatziz edo ahoz adierazi, lekukoaren aurrean.

BIBLIOGRAFIA

1. CASADO, M.

LA EUTANASIA, ASPECTOS ÉTICOS Y JURÍDICOS
Reus. Madrid, 1994

2. DIEZ RIPOLLÉS Y MUÑOZ SÁNCHEZ, J (coordinadores)

EL TRATAMIENTO JURÍDICO DE LA EUTANASIA. Una perspectiva comparada.
Tirant lo Blanch. Valencia, 1996

3. HINTON, J.

EXPERIENCIAS SOBRE EL MORIR
Seix Barral. Barcelona, 1996

4. HUMPRY, D.

EL ÚLTIMO RECURSO
Tusquets. Barcelona, 1989

5. KUSHE, H.

LA EUTANASIA, en Singer, P., **Compendio de Ética**
Alianza. Madrid, 1995

6. BAIRD, R. y ROSEBAUM, S.

EUTANASIA: LOS DILEMAS MORALES
Martínez Roca. Barcelona, 1992

7. BETANCOR, J. T.

BIOÉTICA Y EUTANASIA, en **Materiales de Bioética y Derecho**

Casado, M. (editorial). Barcelona, Cedecs, 1996

8. DWORKIN, R.

EL DOMINIO DE LA VIDA
Ariel. Barcelona, 1994

9. GAFO, J.

LA EUTANASIA, EL DERECHO A UNA MUERTE HUMANA

Temas de hoy. Madrid, 1989

10. HUMPHRY, D. y WICKETT, A.

EL DERECHO A MORIR: COMPRENDER LA

EUTANASIA

Tusquets. Barcelona, 1989

11. KÜBLER - ROSS, E.

SOBRE LA MUERTE Y LOS MORIBUNDOS
Grijalbo. Barcelona, 1993

12. MORÍN, E.

EL HOMBRE Y LA MUERTE
Kairós. Barcelona, 1994

13. FUNDACIÓN CIENCIAS DE LA SALUD

MORIR CON DIGNIDAD: DILEMAS ÉTICOS EN EL FINAL DE LA VIDA

Doce Calles. Madrid, 1995

14. QUINTANA, O.

POR UNA MUERTE SIN LÁGRIMAS PROBLEMAS ÉTICOS AL FINAL DE LA VIDA

Flor del Viento Ediciones. Barcelona, 1997

15. SOULIER, J. P.

MORIR CON DIGNIDAD. UNA CUESTIÓN MÉDICA, UNA CUESTIÓN ÉTICA

Temas de Hoy. Madrid, 1994

16. SÁBADA, J.

SABER MORIR

Prodhufi. Madrid, 1991

17. THEVOZ, M. y JACCARD, R.

MANIFIESTO POR UNA MUERTE DIGNA
Prólogo de Salvador PÁNIKER

Kairós. Barcelona, 1992

18. SANPEDRO, R. (Libro testimonio)

CARTAS DESDE EL INFIERNO

Planeta. 1996.



BIZI TESTAMENTUA

Nire bizitzaren amaierari buruzko borondatearen adierazpena

Jauna/andrea:..... NAN zk.:

Helbidea:

Adinez nagusia, eta gaitasun osoa izanik, askatasunez eta luze hausnartu ondoren, honakoa **ADIERAZTEN DUT**:

Agiri honetako 4. puntuan adierazitako egoera klinikoren batean egonik, nire hondamen fisikoaren edo mentalaren ondorioz nire zaintza medikoari buruz erabakirik hartzeko gai ez baldin banaiz, eta elkarrekin zerikusirik ez duten bi medikuk nire egoera atzeraezina dela adierazten badute, hona hemen nire borondate irmoa:

1. Nire bizitza ez dadila modu artifizialen bidez luzatu, esaterako honakoen bidez: bizitzari eusteko teknikak, zain barmeko fluidoak, medikamentuak edo elikadura artifiziala.
2. Gaixotasunak edo fluido edo elikagai faltak sortutako ondoeza, sufrimendu psikikoa edo oinazea ahal den guztia arintzeko beharrezkoak diren medikamentuak eman diezazkidatela, nahiz eta horrek bizitza labur diezadaken.
3. Nire osasun egoera oso txarra baldin bada, agiri honetako 2. puntuan adierazitako minak azkar eta oinazerik gabe behin betirako kentzeko medikamentuak eman diezazkidatela.
4. Goian adierazitako egoera klinikoak honakoak dira:
 - * Kalte zerebral larria eta atzeraezina.
 - * Tumore gaiztoa sakabanatuta eta fase aurreratuan.
 - * Nerbio sistemaren edo muskulu sistemaren endekapenezko gaixotasuna fase aurreratuan, mugikortasuna asko mugatzen didana eta tratamendu bereziari –baldin balego– erantzuten ez diona.
 - * Dementzia aurre-senila, senila edo antzekoak.
 - * Aurrekoen atzeko larritasuna duten gaixotasunak edo egoerak.
 - * Bestelakoak. (adierazi zeintzuk, nahi izanez gero).
5. Nire bizitzaren amaierari buruz agiri honetan adierazitako aginduak betetzen direla zaintzeko, eta horretarako behar diren erabakiak hartzeko, honako hau izendatzen dut nire ordezkari gisa:
Ordezkariaren izena:
NAN zk.:
6. Halaber, adierazten dut zaintzen nauten medikuak, aitorten honetan adierazitakoa betetzeagatik, erantzukizun zibil eta penal guztietatik aske uzten ditudala.
7. Gorde egiten dut edozein unetan adierazpen hau ezezteko aukera, dela hitzez dela idatziz.

Eguna:

Lekua:

Sinadura:

LEKUKOAK:

1. izena

NAN

Sinadura

2. izena

NAN

Sinadura

3. izena

NAN

Sinadura

1. ORDEZKARIA:

Sinadura:

Eguna:

2. ORDEZKARIA:

Sinadura:

Eguna:

3. ORDEZKARIA:

Sinadura:

Eguna: